

**GR® 1 IBILBIDE HISTORIKOA**

GR® 1 Ibilbidea antzinako Empúries (L 'Escala, Girona) hiri greko-erromatarreko aztarnategi arkeologikoetatik hasi, Costa Brava erdi-erdian, Mediterraneo ertzetik, eta Ozeano Atlantikorantz joaten da, han amaitzen baita, Finisterren (A Coruña) hain zuzen.

1.600 km inguru ditu eta, batez ere, mendi-oineko eremuak zeharkatzen ditu, Kantauri mendikatetik igarotzen diren goi-mendiko etapak izan ezik.

**GR® 1 NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAN**

GR® 1ek Nafarroa zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera, Nafarroako Foru Komunitateko bost merindade historikoetatik hiru zeharkatuz: Sangüesa/Zangoza, Olite/Erriberri eta Estella/Lizarra.

Peñako Dorretik sartu eta Nazar mendatetik irteten da Nafarroatik. Badira 134 km 8 etapatan banatuta. Etapa horiek abelbideetan zehar ibiltzen dira, natura erreserbak zeharkatu, Ebroren ibaiadarrak diren Arga, Ega eta Aragoi ibaien ibai-arroak ibili, eta interes sozial, historiko eta kultural handiko lekuak eta herriak bisitatzen dituzte.

Nafarroako beste lau udalerri daude GR® 1en ibilbidean sartuta, inguruko autonomia-erkidegoetako etapetan: Aragoiko Petilla Zaragozako probintzian, Aragoiko Autonomia Erkidegoan, eta Genevilla, Cabredo eta Marañon Arabako probintzian, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Garaiko zibilizazioen arteko etengabeko topaketa izan zenaren erdian, izan zirenen eta gertatu zirenen hainbat aztarna historiko aurkituko ditugu ibilbidean zehar.



**OHARRAK**

Distantziak kalkulatzeko GPS teknologia erabili da, eta MDT bidez profilak hobetu dira. Denborak kalkulatzeko, MIDE metodoa baliatu da: metodo ofiziala Espainiako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioarentzat (FEDME), baita MEKNF-rentzat ere. Horregatik, ibiltari zeharkaldi-motxiladunentzako gutxi gorabeherako denborak dira, haien doikuntza edo desbideratzea Nafarroako GR<sup>®</sup> guztietan berdina izanen delarik. Hots, bideskentzako erreferentzia egokia.

GR<sup>®</sup> honen etapa guztiek jendea bizi den lekuetan bukatzen dute.

Egiteko gomendatutako garaia: Udaberria eta udazkena.

Gure bidezidor homologatuen bilatzailean <https://senderos.nafarmendi.org/>, track-ak eta ibilbideen gidak aurkituko dituzu, baita Misenda FEDME bilatzailean eta FEDME PASO A PASO aplikazioan ere (aplikazioa eskuragarri dago Android eta iOS gailu mugikorretarako).

Horren bidez, GR<sup>®</sup> 1 erabiltzen duen edonork honako hauen berri eman dezake: gorabeherak, bidezidorraren trazadurari buruzko iritziak, mantentze- eta kontserbazio-egoera, zerbitzuen iritziak, iradokizunak, eta federazio honetako Bideetako Boluntariotza Taldean parte hartzeko eskaera.

Iruña, 2024ko martxoaren 31



Instituto Navarro del Deporte  
y de la Actividad Física



Nafarroako Kirolaren eta  
Jarduera Fisikoaren Institutua



## GR® IBILBIDEEN SEINALEZTAPENA:
















Jarraitzeko  
bideaOkerreko  
bideaNorabide  
aldaketa

## MEKNF-K HOMOLOGATURIKO BIDEAK:

- ✓ GR®, PR® edo SL® erregistraturiko seinaleek identifikatuta daude.
- ✓ Seinaleztapen eta informazio homogeneous dute lurralde nazional osoan, zein Europako hainbat herrialdetan.
- ✓ Trazadura- eta seinaleztapen-eskakizun zehatzak betetzen dituzte.
- ✓ Kalitatea, segurtasuna eta jasangarritasuna bermatzen dituzte.
- ✓ Ingurune naturala eta landa-tradizioa ezagutzea sustatzen dute.
- ✓ Landa-eremuetan turismo jasangarria garatzen dute.

<b>Ibilbide Luzeko bidea (GR®)</b> 50 km baino gehiagoko bidexka	
<b>Ibilbide Laburreko bidea (PR®)</b> 10 eta 50 km-arte bidexka	
<b>Herri Ibilbideko bidea (SL®)</b> 10 km baino guttiagoko bidexka	

**IBILBIDEAREN DESKRIBAPENEAN ERABILITAKO ZEINUAK (ZERBITZUAK):**

-  Autobusentzako errepide irisgarria
-  Autoentzako errepide irisgarria
-  Ostatu, gosari eta afari zerbitzua
-  Turismoko informazio zerbitzua
-  Autokarabana eremua
-  Baseliza, eliza
-  Jauregia, dorrea, harresia
-  Zubi erromatarra edo Erdi Arokoa
-  Erdi Aroko aztarnak, erromatarrak, megalitikoak
-  Natur-monumentuak
-  Hegazti behatokia
-  Paisaia, ikuspegi panoramikoa
-  Abeltzarea
-  Done Jakue Bidea
-  Osasun Zentroa

**MIDE:**

MIDE (Txangoei Buruzko Informazio Metodoa) ibilaldien zailtasuna baloratzeko eta adierazteko metodoa da, ibilbideen eskakizun tekniko eta fisikoen mailakatze-eskala batetik abiatuta. Horrela, ibilaldiak sailkatu daitezke informazio hobea lortzeko.

Informazio-metodoa ez ezik, mendiko istripuak saihesteko tresna ere bada, zeren eta zenbat eta informazio gehiago, orduan eta segurtasun handiagoa.

**MIDE-k ematen duen informazioa bi motakoa da:**

1etik 5erako eskala (txikienetik handienara). Lau zailtasun alderdi baloratzea: natura ingurunearen gogortasuna, orientazioa ibilbidean, ibiltzeko zailtasuna eta beharrezko esfortzu-kantitatea.



Ingurunea: Natur ingurunearen gogortasuna.



Ibilbidea: Orientazioa ibilbidean.



Zailtasuna: Ibiltzeko zailtasuna.



Esfortzua: Beharrezko esfortzu-kantitatea.

Ibilbidearen gaineko informazioa: ordutegia, desnibel positibo metatua, desnibel negatibo metatua, egindako distantzia horizontala eta ibilbide mota (joan-etorria, zirkularra edo zeharkaldia):



Etaparen luzera.



Igoerako desnibel metatua.



Beheranzko desnibel metatua.



Etapen deskribapenaren zenbatetsitako denbora.




Etapen deskribapenaren kontrako noranzkoan zenbatetsitako denbora.

✓ MIDE irizpideen arabera kalkulaturiko denborak, geldialdirik gabe.

✓ Eguraldi onarekin.



## Lgo. ETAPA SOS DEL REY CATÓLICO – CÁSEDA



19,3 km	150 m	359 m	5:20	5:25	3	2	2	3

Lehenbiziko etapa hau Sos del Rey Católico herrian hasiko da, Aragoiko lurretan hain zuzen ere, Peña mendizerraren oinean.

GR® 1-aren ibilbide zaharrak mendizerraren goiko aldea eta Peña herri hustua zeharkatzen zituen arren, gaur egungo ibilbideak mendia iparraldeko magaletik inguratzen du. Nafarroara sarrera Torre de Añes parean egingo du, behinolako herrirka gotortuan.

Ibilbideak Nafarroa barruan eginen dituen lehen metroak, Torre de Peña eta Kaseda artean, antzinean zeuden abelbideetatik eginen ditu. Aspalditik dauden transhumantzia bide zaharrak dira abelbide hauek, artzainek beraien artaldeak Pirinioetako ibarretatik Errege Bardeetara eramateko erabiltzen zituzten bideak, bertan negua pasa zezaten. Udaberrian kontrako norantzan egiten zuten bide bera, Pirinioetako larreetako belar goxoaren bila.

Kasedara iritsi baina lehenago San Zoilo ermita ikusiko dugu. XIV. mendeko eraikuntza hau, 1204. urtean bidelapurrei aurre egiteko sortutako ermandade baten elkargunea izan zen garai batean. Gaur egun Kultura-Intereseko Ondasun bezala izendatuta dago.

Oro har, etapa eroso bada ere, lehen 10 km-etan ez dugu bidean ia itzalik izango. Horretaz gain, San Zoilo ermitako atsedenekuan soilik aurkituko dugu ibilbideko iturri bakarra, Kaseda herritik 3 km-ra eta Sos del Rey Católico-tik 16 km-ra.

	Sos del Rey Católico							
		597 m		0 km		0 m		0 m
		0:00 h		5:25 h				
Zerbitzuak								

Campo Real-eko errepidera jaisten den bidea hartuz hasiko da ibilbidea. Errepide hori gurutzatu ondoren, jaisten jarraituko dugu, bideak Navardún-Petilla errepidearekin bat egiten duen puntuan dagoen nekazal-pabiloi bateraino.








Ezkerretara, A-127 errepidea hartuko dugu metro gutxi batzuetan, eta ipar-ekialderantz jaiotzen den pistatik jarraituko dugu, Camino de Sos del Rey Católico izenekoa.



Eremu horretan, GR® 1ek ez du zalantzarik ematen, eta ez die jaramonik egin behar dauden desbideratzei.

Fuente Aragoneko Sakana zeharkatu ondoren, abeltzaintza-nabe zonalde batera iritsiko gara, zerumugan Añuesko Dorrea harro dagoelarik.










Dorrea erreferentetzat hartuta, bidean aurrera egingo dugu, eskuinetara bihurgune itxi bat egin ondoren, bertara iristeko.

2	Torre de Añués												
			502 m		8,1 km		55 m		145 m		2:15 h		3:09 h

Nafarroa eta Aragoiaren arteko muga da hau eta bertatik Torre de Peña herria ikus daiteke.

Iparraldeko noranzkoarekin jarraituko dugu, aurrerago dagoen bidegurutze bateraino jaitsiz. Bertan “Camino del Carraño” izeneko bidea hartuko dugu, ia 180°-ko bira emanaz eta hegoaldeko norantza hartuz.

Hartu berri dugun pista honek hainbat soro zeharkatzen ditu eta “Corral de Goyo” izeneko etxeak atzean utzi ondoren, Gabarderaletik datorren errepidean du amaiera. Aparkalekua.

3	Torre de Peña											
  		488 m		10,7 km		85 m		185 m		3:00 h		2:24 h

Erronkariko Abelbide Erreal. Hemendik aurrera, Kaseda herriraino iritsi arte, abelbideetan barrena ibiliko gara.

Iparraldeko norantza hartuko dugu lehenbizi, errepidearekiko paralelo doan bidea erabiliz. Erronkariko Abelbideak eta 28. Pasadabideak bat egiten duten tokian, zutoin gezidun bat aurkituko dugu, hartu beharreko bidea zein den adieraziko diguna.

28. pasabidea honi helduko diogu orain, artez eta basoberaz osatutako lerro batek babestutako lurrezko bide batean zehar. Bidean aurrera egin ahala, abelbide honen mugak ezartzen dituzten hainbat mugarri ikusi ahal izango ditugu.











Eskuin aldera biratu ondoren, “Barranco de los Huertos” izeneko ingurura jaitsiko gara. Normalean lehor egon ohi den erreka bat gurutzatu ondoren, sakanaren ezker aldean sortzen den bidexka hartuko dugu eta sastraka artetik igaroz, “Muga del Montico” izeneko gainera igoko gara.

Lehen bezala, bideak basobera eta artez osatutako lerro baten babesa du hemen ere, eta gune soilune batera eramango gaitu. Bertan bidea pista bihurtuko da eta soroen artean aurrera egingez, “Barranco de Barduces” izeneko tokian dagoen bidegurutzera iritsiko gara.

Bidegurutzea. Iparralderantz “Casas de Uscarrés”-era darama bideak.

Hegoalderantz egingo dugu, “Barranco de Barduces” barruan oraindik ere eta aurrerago ekialderantz doan aldapa leun batean gora joko dugu.

Honela, lepo batera iritsiko gara eta bertan dagoen bidegurutzean ekialdeko norantzarekin jarraituko dugu, pixkanaka beherantz doan bidean barna. Handik gutxira San Zoilo ermitara helduko gara.













4	San Zoilo Baseliza								
				 502 m	 16,4 km	 145 m	 234 m	 4:35 h	 0:49 h

Hona iritsitakoan, Erronkariko Abeldidearen osagarri den 11. Zeharbideari helduko diogu, Kaseda herrirantz, ermitaren iparraldetik abiatuz.

Bertan dagoen atsedenekua igaro ostean, errepidetik egingo ditugu hurrengo 900 metroak. Beraz, arreta berezia jarri beharko dugu tarte honetan. Hilerria igaro eta errepideak ubidearen pistarekin bat egiten duen tokian, bide zaharra hartuko dugu, errepidea albo batera utziz.

Bideak beherantz egiten du eta, Arbeloa korralea atzean utzi ondoren, Kaseda hegoadetik sartuko gara herrian.

Iparralderantz egingo dugu, Zaraitzuko Abeldidearen kalean zehar, Oibarretik datorren errepidera iritsi arte, Aragoi ibaia gurutzatzen duen zubiaren ondoan.

5	Cáseda								
	 380 m	 19,3 km	 150 m	 359 m	 5:20 h	 0:00 h			
Zerbitzuak									

Belardi-parkea dago bertan, baita upategi bat ere. Zubia gurutzatu gabe, parkea zeharkatuko dugu eta Udal Kirol Instalazioetaraino heldu arte.

Peña eta Galipentzu herriak bezalaxe, Cáseda ere Nafarroako Erresumaren mugako leku garrantzitsua izan zen.



## 2.ETAPA CÁSEDA - UJUÉ/UXUE



15,5 km	721 m	316 m	5:00	4:35	3	2	2	3

Cásedako Udal Kirol Instalazioetan hasten da etapa hau.

GR® 1-ak zeharkatzen dituen hegoaldeko mendilerro hauek Pirinio inguruetako mendien eta Erriberako lautada zabalen arteko muga eraikitzen dute. Forma leuna duen erliebe hau artez eta haritzez beterik egon zen garai batean eta, gaur egun, Kaparreta Erreserba Naturalaren inguruan soilik aurki ditzakegu baso haien aztarnak.

Kasedatik begiratuta, Galipentzu herriaren ikuspegi paregabeaz goza dezakegu, Aragoi ibaiaren gainean, menditik zintzilik baitzetan atzematen baita herria.

Galipentzu atzean utzi orduko, Uxue herri gotortua ikusi ahal izango dugu, mendilerroaren gain-gainetik inguru gutzia behatuz.




Eta honek estu hartuko gaitu, Galipentzu inguruan eta Zaldunaga sakanetik Uxuera egin beharko dugun igoeran batez ere. Galipentzu eta Zaldunaga arteko 5 kilometroetan itzal gutxi izango dugu eta ibilbide osoan ura lortzeko aukera bakarra Galipentzun izango dugu, Kasedatik 4 km-ra eta Uxuetik 11 km-ra.

1	Cáseda										
		380 m	0 km	0 m	0 m	0:00 h		4:35 h			
Zerbitzuak											








Eta hasierako informazio panela herriko kontserba fabrika zaharraren horman kokatuta dago. Puntu honetara ekarri gaituen kaleari jarraituko diogu kale bukaerara iritsi arte eta bertan ezkerredera egingo dugu, etxe familiabakar gune batetik. Eskailera maila batzuk igo eta Guardia Zibilaren kuartelaren atzealdetik pasako gara.

Puntu honetan, Campobajo Bideari helduko diogu, laua eta soroz josita dagoena, telefono linea hurbil daukana.

Honela, pista desberdinen arteko bidegurutze batera iritsiko gara, eta bertan eskuinera egingo dugu, Aragoi ibaiaren ertzero hurbilduz. Ezker aldean Kaparretako haitzak izanen ditugu.

②	Kaparreta							
		△ 379 m		3,5 km	↗ 678 m	↘ 235 m	⌚ 0:55 h	⌚ 3:40 h

Galipentzu Zaharra herriaren begiradapean zubi erromanikoa gurutzatuko dugu, zeina aurreko mendean hala-nolako konponketa jasan zuen. Zubiaren beste aldean, ezkerrera eginez aldapa igotzen hasiko gara, galtzada zahar baten aztarnak erakutsiko dizkigun bidetik.

③	Gallipienzo/Galipentzu							
		△ 493 m		4,7 km	↗ 171 m	↘ 61 m	⌚ 1:25 h	⌚ 3:23 h
Zerbitzuak	       							

Aldapa pikoari jarraituz, herriaren behealdean dagoen landa-hotelaren ingurura iritsiko gara eta, bere gibeletik, Galipentzuko harrizko karrika aldatatsuetan murgilduko gara.

Herriaren goialdean behatokia dago, non urez hornituko garen. San Salvador elizaren azpitik pasa eta bidezidor batek elizaren atzealderaino eramango gaitu. Bertan, pista zabal batek Uxue aldera bideratuko gaitu, zeinak mendizerraren goialdetik zelatan baikauzka. Hegoaldera, ordea, Kaparretako Natur Erreserbaren eta Aragoi ibaiaren Zainketa Bereziko Eremuaren ikuspegi zoragarriak harrituko gaituzte.











Valdizarrak eta Pastiligorra izenez ezagutzen diren sakanen segida batek Andinagara eramango gaitu hainbat bihurgune eta malda gaindituz. Ondoren, "La Villa" eta "Marceliana" izeneko ukuiluetatik igarota, Zaldunagako sakanera iritsiko gara.

Puntu horretan, Galipentzu eta Uxue arteko ibilbidearen punturik baxuenean gaude. Bertan, zementuzko bidexka batera iritsi aurretik, pistaren ezker aldean sortzen den bidexka hartuko dugu, handik 40 bat metrora Zaldunagako erreka zeharkatzeko. Bidexka estuak nabarmenki gora egiten du, ezpal eta pinu karraskadunen artean.

Bidexkaren goialdean Murillo el Frutotik Zaraitzura zihoan antzinako abelbidea zeharkatuko dugu, "Portillo del Señor" delako tokian. Jaitsiera txiki baten ondoren, Uxue herriko beheko aldera eramango gaituen pista aurkituko dugu, Zautelu izeneko eremuan.

Pista honetatik jarraituko dugu, beti ere Uxue begi bistan dugula. Aizkanbela arroila igaro eta gero bidegurutze batera helduko gara. Bertan eskuinera egingo dugu, bidezidor bati helduz, non tarteren batean galtzada zahar baten arrastoak topatuko ditugun.

Bidexka San Migel eliza aurrietan amaitzen da. Herrira sartuko gara, ibilgailuen aparkalekua gure eskuinean utzita.


④	Ujué/Uxue					
	△ 784 m	 15,5 km	↗ 721 m	↘ 316 m	⌚ 5:00 h	⌚ 0:00 h
Zerbitzuak	        					

Aparkalekua igaro ondoren, Udaletxeko plazaraino doan karrika aldapatsua hartuko dugu. Bertan, eskuinera biratuz, etxe garai bateko arkupea zeharkatu ondoren, beste aparkalekuraino iritsiko gara. Han, hurrengo etapako panela kokaturik dago, baita begiratoki eder bat ere, Zangozako lurraz eta Pirinioetako paisaia zabalaz gozatzeko.

Uxueko Erdi Aroko hiribildu historikoak antzinako kale estu bezain harritsuak, eta garaiko itxura gordetzen ditu. Mendeetan zehar Nafarroako Erresumaren sarrerako ate nagusietako bat zaindu zuen defentsagune hau Orbaibarko mendien hegoaldeko estribazioetan kokatuta dago.

Nafarroa inbaditu ondoren, Gaztelak gazteluak eraitsi zituen, gotorleku honen erdigunea suntsitu zuelarik.

## 3. ETAPA UJUÉ/UXUE – OLITE/ERRIBERRI



15,6 km	50 m	450 m	3:40	3:50	3	2	2	3

Uxueko gaztelua Nafarroako zaharrenetako bat da eta Karlos II.a nafar erregearen bihotza bere elizan dago.

Bestalde, Uxue Merindadeko erromesen elkargunea ere bada eta tuniak soinean, oinutsik eta gurutze handiak eramanez, Uxueko Ama Birjinaren irudia gurtzen dute urtero.

Eta honetatik aurrera, Erriberriko Merindadean barneratuko gara, Nafarroako erdigunean, Mendialdearen eta Erriberaren arteko trantsizio-eremuan. Lurrak altuera gutxi du, zereal, olibondo eta mahastiak nagusi direla.

Eta eroso da oro har, nagusiki beherantz egiten du eta ia itzalik ez dugu aurkituko. Ibilbidean ez dago ur-punturik.

①	Uxue/Ujué						
	△ 784 m		0 km		0 m		0 0:00 h
Zerbitzuak							

Herrian atonduta dituzten autoen bi aparkalekuetako batean hasiko da ibilbidea eta bertan izango dugu etapari buruzko informazio guztia emango digun informazio panela.










Iparralderantz eginez abiatuko da etapa eta Uxue herri kanpoaldeko jatetxe batzuen ondotik pasatuz, herrira iristen den errepide nagusira iritsiko gara. Errepide honen bazterretik ibiliz hasiko gara herritik ateratzen.

Errepide bazterreko soilgune batean, Erriberrira daramagun bideari buruzko informazioa emango digun zutaina dago.

Hemendik aurrera, 700 bat metro zehar, arreta handiz ibili beharko dugu, ibilbidea errepide bazterretik doalako.

Eskuin aldera ateratzen den hilerrirako bideari jaramonik egin gabe, ezker aldera ateratzen den lehen bidea hartuko dugu orduan, zelai batera jaisteko.

Zelai hau zeharkatuz, Tejeriako iturri ondotik pasako gara eta borda eder bat ezkerretara utziz, berriro ere errepidera igoko da bidea, aldapa txiki bat igoz.

2	Cruz del Saludo													
				781 m		1,4 km		20 m		20 m		0:20 h		3:30 h

Hainbat errepide eta bideren arteko bidegurutzea. Erdi erdian “Cruz del Saludo” izeneko gurutzea du, non, urtero, apirilaren bukaeran, inguruko herrietatik Uxuera egiten diren erromeriek elkar bat egiten duten.

Errepideak alde batera utziz, hego-mendebalderantz eta aldapan beheara hasten den hartxintzarrezko pistari helduko diogu, “Busako bidea” izenez ezagutzen den bideari, hain zuzen ere.

Pista honi jarraituko diogu hurrengo ia 4 km-etan, ezker-eskuin ateratzen diren hainbat bideri muzin eginez, beti pista nagusiari jarraituz. Hego-mendebaldeko norabidea mantenduko dugu beti, beheranzko joerarekin, soro artean dagoen sasi-ordeka batera iritsi arte.

Puntu honetan, honaino ekarri gaituen pistatik atera eta eskuin aldera jaiotzen den lurrezko bidezidor estu bati helduko diogu. Erne egon beharko dugu bide hau ikusteko, nahiz eta horretan bertan zurezko zutoin bat aurkituko dugun.






Kilometro batean zehar, bidexka honek ingurune desberdin hau zeharkatzen lagunduko digu, zuhaixkaz betetako ingurua hain zuzen ere. Tarteka-marteka topatuko dugun harrizko zoruak antzinako garaietara eramaten gaitu. Tamalez, 2022ko ekainean inguru hauetan izandako suteek eragin larria izan zuten, bide polit honi zuzen-zuzenean ere eragin ziolarik.

Bidexkak, ia oharkabea, mahasti zabal batean sartuko gaitu. Une honetan, Uxue, San Martin de Unx eta Beire herrietako mugek bat egiten duten puntutik gertu egonen gara, “Las Tres Mugas” izeneko parajea, hain zuzen ere.

Mahastiaren bazterretik doan bide zabala hartuko dugu, eskuinera eginez. Hau egiteko, puntu honetan dagoen zutoin gezidunaren laguntza izanen dugu.

Aurreraxeago, bideak are gehiago biratzen du eskuinera, eta azken aldapa jaitsiz, Nafarroako Ubidea izango dugu begi-bistan. Ubidea bertan dagoen zubitik gurutzatu, eta beste aldean dagoen errepideari jarraituko diogu, eskuinera eginez.

120 bat metro aurrerago, errepidea utzi eta ezkerretera ateratzen den hartxintzarrezko pista jarraituko dugu, bertan ikusiko dugu “Zollín” izena daraman zurezko zutoin ttipia. Pista hau jarraituko dugu beste 250 bat metrotan zehar.

3	Barranco de Beskos											
			△ 472 m	 6,6 km	 25 m	 340 m	 1:50 h	 1:55 h				








Honaino ekarri gaituen pista utzi eta eskuinera joko dugu puntu honetan, lurrezko bide zabala jarraituz. “Barranco de Beskos” dioen zurezko zutoin ttipiak adieraziko digu bide honen kokalekua. Eskuinera egiten duen lurrezko bide honek ezkerretera biratzen du soilgune batean eta handik gutxira hartxintzarrezko pista zabalera itzultzen da.

Pista honi eskuin aldera eginez helduko diogu, eta puntu honetatik aurrera, Erriberriko ateetaraino hartxintzarrezko pistetan barna ibiliko gara, ia maldarik gabeko lurretan. Zailtasun bakarra, aurkituko ditugun hainbat bidegurutzetan bide egokia aukeratzea izanen da.

Jarraitu beharreko bideak ez du norabide aldaketa handirik egiten, beti Mendebalderako norabide argia jarraituko baitu. Bidegurutzetan, bertan aurkituko ditugun seinaleei jaramon egitea, besterik ez dago eta, zalantzaren bat izanez gero, Mendebalderako norabide garbiena duen bidea hartuko dugu. Horrela hurbilduko da bidea, pixkanaka, Erriberriko herriguneraino.


Erriberriko etxeak begi bistan ditugula, ibilbideak Zidakos ibaira hurbilduko gaitu. Horren ondoren, NA-5300 errepidea gurutzatzera behartuko gaitu. Kontu handiz, autoak abiadura handian pasa baitaitezke errepidetik.

Bideak ibaiaren ertzetik jarraituko du beste 250 bat metroan eta breazko pistara iristen denean, ezkerrera hartuko dugu, ibaia gurutzatzen duen zubi zabala igaroz. Hemendik garbi ikusiko dugu Erriberriko Jauregi famatua. Bideak zuzen zuzenean eramanen gaitu herrigunera. Horretarako, azken zailtasun moduan, trenbidea gurutzatuko dugu azpiko pasagunetik.

④	Olite/Erriberri						
	△ 386 m		15,6 km	↗ 50 m	↘ 450 m	⌚ 3:40 h	🕒 0:00 h
Zerbitzuak	        						

Herrigune historikora sartu aurretik, ibilbideak eskuinera jotzen du, jauregia inguratuz, eta San Frantzisko komentuarien sarrera ederraren parean du bukaera etapak. Bertan ikusi ahal izanen dugu egindako etaparen, zein hurrengoaren informazio-panela.

## 4. ETAPA OLITE/ERRIBERRI - LARRAGA



26,7 km	340 m	361 m	7:25	7:25	3	2	2	4

Erriberriko alde zahar ederra atzean utziko dugu, bere jauregi, gaztelu eta bestelako eraikin zibil, erlijioso eta txoko eder askorekin.

Handik mendebalderako bideari jarraituko diogu, soroak zeharkatuz eta "Monte Plano"-raino heltzen.

Bertan, XIII. Mendeko Santa Brigida ermita aurkituko dugu eta artadi eta pinuen artean jarraituko dugu La Chiquitina etxeraino.

Han, berriz ere pistetan zehar ibiliko gara, arto-soroen artean, Miranda de Argako bidean. Pista hau alde batera utziko dugu, ipar-mendebaldera, Taustetik Urbasa eta Andiara doan Abeldidean zehar joanen garelarik, NA-6140 errepidea zeharkatuz, "Camino Ancho" delakora iritsi arte.

Han, mendebaldera joko dugu berriz, eta, trafiko gutxiko beste bi errepide gurutzatu ondoren, Berbintzanara iritsiko gara, hango La Bovedaza eraikina eta Las Eretas herrirako ezagutzeko aukera ederra. Hirigunea zeharkatu eta, berriz ere ipar-mendebalderantz, Berbintzanako Bide Zaharra hartuko dugu Larragaraino, berriz ere nekazaritzako pistetan barna, lur landuen artean.

Etapa luzea eta itzalik gabekoa da, La Chiquitina baserria zeharkatu ondoren. Ibilbideko ur-puntu bakarra Berbintzanan dago, Erriberriatik 21 kilometrora eta Larragatik 5 kilometrora.








<b>1</b>	Olite/Erriberri							
	△ 386 m		0 km	↗ 0 m	↘ 0 m	⌚ 0:00 h	⌚ 7:25 h	
Zerbitzuak								

San Frantzisko komentuari ondoko plazatik mendebaldera joko dugu Geltoki kaletik, NA-8602 errepidea, Rúa Romana izenekoa, tentu handiz zeharkatzeko oinezkoen pasabidetik. Honela, Santa Brigida kalean sartuko gara (iturri bat dago, Berbintzanara iritsi arte aurkituko dugun bakarra).



N-121 errepidearen azpiko pasabidea gurutzatu ondoren, ipar-mendebaldera biratuko gara Fontanazako bidetik, eta kilometro eta erdi igaro ondoren, Azkoiengo errepidea (NA-115) kontu handiz gurutzatuko dugu. Ondoren, AP-15 autobidearen gainetik igaroko gara, Berbintzanako Bide Zaharrera iristeko.

Berbintzanatik Erriberrirako Bide Zaharra berehala utzi eta hegoaldera joko dugu, autobidearen pare-parean, Santa Brigida aldapara iristeko, izen horretako ermitatik gertu. Hemen mendebalderako norantza hartuko dugu berriro.

2	Ermita de Santa Brígida basiliza											
		△ 460 m		4,4 km		120 m		30 m		1:15 h		6:10 h

Ermita inguratzen duen harresian aterpe txiki bat kokatuta dago, ekaitzaren kasuan babeslekutzat erabiltzeko. Baselizatik gertu dagoen gurutzadura baten ondoan, pinudia amaitu eta artadia hasten da, erromerietarako prestatutako merendero ugari dauden eremuan.

Mendebalderantz jarraituz, artadia atzean utzi, eta, berriro ere, soro artean 1,5 km egingo dugu. Pista zabal bat gurutzatu ondoren, beste pista berri batera iritsiko gara. Pista horri helduz, iparralderantz joko dugu, Tafalla udalerriarekin muga egiten duen artadira iritsi arte.

Puntu horretan zenbait pista elkartzen dira. Guk Artadian sartzen den bidea hartuko dugu, ezkerretik hasita, bigarrena. Lehenbizi ipar-mendebalderantz jotzen du, jarraian iparralderantz joateko. 900 bat metro egin ondoren, BTT-ko balizatuta dagoen ezkerreko bide bat hartuko dugu.

Bidexka hau mendebalderantz jaisten da AHT-aren obretara daraman pista gurutzatu arte. “Cabriteras” baltsa 100 metrora iparraldera dago.

Pista zeharkatuz gero, bideak gora egiten du, zeharkatuko dugun pinudira iritsi arte. Iparralderantz jarraitzen duen BTT bidexka alde batera utzi ondoren, jaitsiera jo eta pista zabal berri batera helduko gara.









Pista horretatik hego-mendebalderantz joko dugu, “La Chiquitina” etxalderako bidean. Korrale hau gaingitu ondoren, hegoalderantz jarraituko dugu arto-zelaiaren artean, 400 metro egin ondoren, beste bidegurutze batera iritsi arte. Bidegurutze horretan, eskuinera hartuko dugu Miranda de Argako bidean. Mendebalderantz jarraituko dugu, 2,6 km-tan, alde batera eta bestera agertuko zaizkigun zenbait bideri muzin eginez, “El Saso” sakanarekiko bide paraleloari jarraituz. “La Llana” izeneko eremuan Taustetik Urbasa eta Andiara doan Abelbideari lotuko gatzazkio ipar-mendebalderantz joz. Bertatik, 2,3 kilometro egin ostean, NA-6140 errepidera iritsiko gara, Candaraizko eremuan.

Errepidea arretaz zeharkatuko dugu. Tarte horretan “Vera Cruz” deritzon bidearen seinaleren bat aurkituko dugu, baita abelbidea zedarritzen duten mugarriak ere. Abelbidearekin bat egingen dugu hurrengo 1,5 kilometroetan. Horren ondoren, ipar-mendebalderantz (bidearen ezker alderantz) jotzen den bidea hartuko dugu, “El Rincón” korralera hurbilduko gaituena.

Ondoren, “Camino Ancho” delakora iritsiko gara berriz ere. Puntu honetan mendebalderantz joko dugu. Nekazari ugari ibiltzen da honako pista hau, ingurunea soroz josita dagoelako.

Bertatik 2,3 km-tara gure ezkerretara dagoen ukuilu bat gainditu ondoren NA-6100 errepidea arreta handiz gurutzatuko dugu.









Bide horretatik beste kilometro batera, jaitsierako bihurtune itxi batean, NA-6120 errepidera iritsiko gara. Errepide horrek, 900 metro ibili ondoren, Berbintzanen sartzan den Arga ibaiaren gaineko Erdi Aroko zubira eramaten gaitu.

③	Berbintzana/Berbintzana						
	△ 319 m	 21,6 km	↗ 245 m	↘ 311 m	🕒 5:55 h	🕒 1:30 h	
Zerbitzuak	      						

Kale Berria zeharkatu ondoren, Kale Nagusira iritsiko gara. Bertan iparraldera jo, eta 300 metro egin ondoren, ezkerreko egingo dugu Larragako bidea hartzeko.


Horrela Berbintzanako hirigunetik aterako gara, iparralderantz eginez, berriro ere nekazal-soro emankorren artean. Aldapa txiki bat gainditu eta 1,7 km egin ondoren, Berbintzanako Bide Zaharrari helduko diogu, Larraga dagoeneko begi bistan dugula. Pista honi jarraiki Larragara iritsiko gara.

“El Huerto” kalean hirigunera sartuko gara, berehala, Berbintzanako errepidetik herria zeharkatzeko, Leringo errepidearekin (NA-601) topo egin arte. Azken errepide hau hartuta, handik metro gutxira, mendebaldera joko dugu, Baltsako errepidetik kiroldegiraino heldu arte, etaparen amaierara hain justu ere.

④	Larraga						
	△ 366 m	 26,7 km	↗ 340 m	↘ 361 m	🕒 7:25 h	🕒 0:00 h	
Zerbitzuak	      						

Larragaren historia aberatsak aztarna ugari utzi dizkigu: alde batetik, San Migel Goiaingeruaren eliza (bertako organoa Larragan bertan eraiki zuen Diego Gomezek, bertako organo-egileak), herriko hainbat jauregi eder edota Foruen Plaza, eta bestetik, aztarna megalitikoak, erromatar zubia edo garai batean muino gainean zegoen gaztelua (gaur egun desagertuta dago). “Bejera” izeneko eraikin berezi batzuk ere berreskuratzen ari dira, erlauntzak babesteko Nafarroako erdialdean tradizionalki eraiki ohi zituztenak.

## 5. ETAPA LARRAGA - ALLO



19,4 km	238 m	183 m	6:41	6:41	3	1	2	3

Larragako kirol instalazioen ondoan hasten da etapa, Kontzejuaren bidetik. Milagrotik Aezkoara doan Abelbidea gurutzatu ondoren, San Bartolomeko erpin geodesikotik oso hurbil pasako gara eta, ondoren, Baigorriko herri zaharraren aztarnak ikusiko ditugu. Ega ibaiaren ertzean kilometro batzuk egin ondoren, Taustetik Urbasa eta Andiara doan Abelbidearen 13. Pasabideara iritsiko gara, bertatik jarraitzeko. Allotik hurbil, Santiagoko begiratokira hurbildu ondoren, Libokako Miliariora iritsiko gara, Alloko hirigunean sartu aurretik.

Bere osotasunean pistetan zehar egingo dugun etapa da honako hau. Ibilbidean ez dago iturrik.

①	Larraga						
	△ 366 m	0 km	0 m	0 m	0:00 h	6:41 h	
Zerbitzuak							

GR® 1-aren Nafarroako zatiaren bosgarren etapa honen hasierako panela Larragako kirol instalazioen ondoan dago.

Pista zabal bat hartuz hasiko dugu ibilbidea, ezkerrera (mendebaldera) eginez, eta bospasei minutuan ibilbidean aurkituko dugun lehenengo zutoin gezidunara iritsiko gara.

Bidea ezkerretara egiten duen pista zabal batetik jarraituko dugu. Etapa osoan bidegurutze ugari dagoenez, seinaleak arretaz bilatu beharko ditugu bide zuzenari heltzeko, horietako bakoitzean. Pistan aurrera eginez, Milagrotik Aezkoara doan Abelbidea zeharkatzen duen Laucarras izeneko zutoinera hurbilduko gara.

Nekazal-soroen artean aurrera eginez, hogei bat minutuan, San Bartolomeko zutoinera iritsiko gara. Hemendik San Bartolomeko erpin geodesikora iris gaitezke.

②	San Bartolomé						
	△ 505 m	6,8 km	155 m	14 m	2:11 h	4:30 h	

Mendebalderanzko jaitsierako bidean jarraituko dugu ("Las Largas" bidea), GR® 1en 5. etapa honetako ibilbide osoan zehar lagun izanen dugun pista zabaletik. Inguru honetan begi-bistak

ireki egiten dira eta Kodes mendilerroa ikus dezakegu, GR® 1-a Araban sartzen den tokia, hain zuzen ere. Antzinako Baigorri herri zaharrera iritsiko gara. Gaur egun etxe bakan batzuen, elizaren eta jauregiaren hondakinak baizik ez dira geratzen. Garai batean Leringo Konderriaren eta Albako Etxearen parte izan zen herri hau.

③	Baigorri						
	△ 423 m		10,5 km	↗ 160 m	↘ 103 m	⌚ 3:24 h	⌚ 3:17 h

Baigorritik iparralderantz eginez abiatuko gara, Oteiza bidetik hurrengo gurutze-bidean ezkerrera jotzeko, ipar-mendebalderantz. Tarte batean Ega ibaiaren ertzetik gertu ibiliko gara, ibaiartzeko landaretza hornituta. Ibaia gurutzatu ondoren, Oteitzako zentralaren bidegurutzera iritsiko gara.

Allora iritsi aurreko azken kilometroetan, hego-mendebaldeko norantza jarraituko dugu, Taustetik Urbasa eta Andia doan Abeldidearen 13. Pasabidea izanen dugu lagun. Santiagoko Begiratokitik hurbil igaro ondoren, Libokako Miliariora iritsiko gara. Andelosko (Mendigorria) eta Curnomium-eko (Los Arcos inguruan) hiri erromatarrek lotzen zituen galtzada zaharraren hondar bakanetakoa izanik.

④	Miliario de Liboca						
	△ 439 m		18,3 km	↗ 238 m	↘ 173 m	⌚ 6:29 h	⌚ 0:12 h

Orain arte ekarri dugun norantzan jarraituta, paper-lantegira doan errepidea gurutzatu ondoren Alloko hiribildura iritsiko gara.

Herrian barna ibilaldi txiki bat eginez, Iturriko pasealekuko plazara iritsiko gara. Han baitago GR® 1-aren bosgarren etapa honen amaiera adierazten duen panela.

⑤	Allo						
	△ 422 m		19,4 km	↗ 238 m	↘ 183 m	⌚ 6:41 h	⌚ 0:00 h
Zerbitzuak							

Herri honetan ikus ditzakegun lekuen artean, 1614an eraiki eta ondoren berritutako Gurutzetokia izan daiteke garrantzitsuenetako bat. Herriko kale estu eta plaza itxietan, berriz, jauregi dotore eta armarridun eraikinak ere ikus ditzakegu.

## 6. ETAPA ALLO-LOS ARCOS














22,8 km	341 m	320 m	6:25	6:15	3	2	2	4

Etapla luzea da eta hiru fasetan bana daiteke: lehena, Deikaztelurako bidean, soroen artean pistetan barna doana izango litzateke.

Bigarren fasean, GR® 1-ak Montejurra mendiaren hego magaletik eramango gaitu, Arellano herritik pasatuz. Han, dorre ikusgarria bisitatu ondoren, Arroitzera eta bertako San Salvador elizara iritsiko gara.

Hirugarren fasean, berriz, Arroitzetik abiatu eta, berriz ere pista zabalak erabiliz, "Los Corrales" eremua igaroko dugu, Los Arcos herrira iristeko. Oso ezaguna da herri hau, Donejakue Bidea bertatik pasatzen baita.

Ia ibilbide osoa eguteren egingo dugunez, bidea urez ongi hornituta egitea biziki gomendagarria da. Ibilbidean zehar Deikaztelun, Arellanon eta Arroitzeko izango ditugu ura lortzeko iturriak.







1	Allo						
	△ 422 m		0 km	 0 m	 0 m	 0:00 h	 6:15 h
Zerbitzuak	     						

"Paseo de la Fuente" izeneko plazatik abiatuko dugu ibilaldia, iparraldera eginez, izen bereko karrikatik. Gasolindegira iritsi aurretik, ezkerretara hartuko dugu Alloko herrigunetik urrunduko gaituen pista, Arellano Bidea hain zuzen.

200 bat metro egin ondoren, Egako errepidera (NA-122) iritsiko gara. Kontu handiz gurutzatu beharko dugu, abiadura eta trafiko handiko tartea baita. Igaro ondoren, pista iparralderantz hartuko dugu. Begi bistan, Montejurrako magalean, gure hurrengo helmuga izanen dugu: Deikaztelu.

Halako batean gure bidea NA-6341 errepidera batzen bada ere, berehala, eskuinetara sartzen den pista hartuko dugu, baratzte artean ibiltzeko, hurrengo bidegurutzera iritsi arte. Han, iparralderantz joko dugu berriz "Camino de la Huerta Vieja" deritzon bidetik, Deikazteluraino. Herrigunera sartu aurretik, kontu handiz ibili behar dugu NA-6341 errepidea gurutzatzeko.







Azken aldapa igotzea, besterik ez dugu behar Montejurra mendiaren oinean dagoen Deikazteluko hiribilduan sartzeko.

<b>2</b>	Dicastillo/Deikaztelu						
	△ 521 m		3,8 km	↗ 95 m	↘ 0 m	⌚ 0:55 h	⌚ 5:30 h
Zerbitzuak	    						

Herria zeharkatzeko, Kale Nagusian gora egingen dugu eta "Hontanilla" izeneko pasealeku ederretik aterako gara herritik. Deikazteluko aisialdi-gunea da honakoa, parke botaniko izateko egokitu berria dena.

Eremu horretatik, eskuinaldean, Gazagako San Pedro monasterioko eliza gotikoa ikus dezakegu, horixe baita monasterioko eraikin guztietatik zutik diraun bakarra. Pasealeku zoragarri hori bukatu orduko, pistak bat-batean eskuinerantz biratzen du. Guk, ordea, gure aurrean iparralderantz sortzen den bidexka hartuko dugu, Montejurra aldera doana.

Bidexka estu honek goranzko joera du eta, Zaballa iturritik pasa ondoren, Arellanoko hiribildura eramaten gaitu.

<b>3</b>	Arellano						
	△ 654 m		6,1 km	↗ 216 m	↘ 0 m	⌚ 1:40 h	⌚ 4:55 h
Zerbitzuak	    						

Arellano herria ekialdetik mendebaldera gurutzatuko dugu, behin Dorre Zaharra bisitatu eta gero. Dorre Zaharra duela urte batzuk berreraiki zuten, eta, handik, herriaren eta inguruaren ikuspegi zoragarriez gozatuko dugu. Leku ezin hobea da GR® 1-eko etapa hau aztertzeko, nondik gatoz eta nora goazen ikusteko.

Parral plazatik, udaletxea eta ehun urtetik gorako iturria dauden tokitik, jarraitu beharreko pista ateratzen da eta, beti mendebalderantz eginez, Montejurra mendiaren magaletik ibiliko gara, gure ezkerretara Hegoaldeko Lautada dugula.

Gure begi bistan zuhaitzak agertzen hasten direnean, Aranbeltzako fazerian sartuko gara. Hor bidea maldan gora egiten hasiko da, GR® 1-eko 6. etapa honetako punturik altuenera iritsi arte, "Cantoelmonte" izeneko eremura, hain justu ere.

Bidegurutzea. Bertatik Montejurra tontorrera igotzeko edota Barbarin herrira jaisteko aukera da. Guk, ordea, hegoaldeko "Cantoelmonte" bidea hartuko dugu, Arroitzera jaisteko.

Jaitsiera horretan topatuko dugun aldapa motz bat igo ondoren, "El Monte" izeneko begiratokira iritsiko gara. Bertatik, berehala igaroko dugun Arroitz herriaz gain, etaparen amaieran kokatuta dagoen Los Arcos herria ere ikusiko dugu urrunago.

Maldak behera egingen du eta, metro batzuen ondoren, hego-mendebalderantz doan pista hartuko dugu, Arroitz herrira iristeko.



4	Arróniz/Arroitz						
	△ 540 m		13,3 km	↗ 326 m	↘ 225 m	⌚ 4:10 h	⌚ 2:30 h
Zerbitzuak							

Hiribildua iparretik hegora zeharkatuko dugu, goiko aldetik sartuta, Mendiako Andre Mariaren ermita gure eskuinera utzita. Hainbat kalexka zeharkatuko ditugu, Foruen plazatik igarota, Barbaringo errepidera iritsi arte.

Jaitsiera motz baten ondoren, GR® 1-aren norabide-geziak ikusiko ditugu, hartu beharreko norabidea erakutsiko digutenak, hego-mendebaldeko norantzan. “Los Arcos bidea” karrika zeharkatuko dugu.

Kontuan hartu beharreko datua da hemendik helmugaraino, hau da, ia 10 kilometrotan, ez dugula bero handiko egunetan babestuko gaituen itzalik izanen.

Arroitz herria atzean utzi ondoren, asfaltozko zorua pista bihurtuko zaigu Garramplingo aldapa behera hasten denean. Bide hau harritatuta dago gunee batzuetan, eta lagun izanen dugu hurrengo kilometroetan. Jaitsieraren ondoren, hego-mendebalderantz jarraituko dugu, Los Arcos Bidea izeneko bidetik.

Bertatik jarraituko dugu hurrengo kilometroetan, eta, igoera txiki baten ondoren, Imastik Iratxera doan Abalbidean sartuko gara, hegoalderantz. Aurreraxeago, bide hori utzi eta eskuinera egiten duen pista hartuko dugu, “Los Corrales” eremura iritsi arte, ganadurako antzinako ikuilu-eremura, hain zuzen ere.

5	Los Corrales						
	△ 480 m		18,1 km	↗ 326 m	↘ 290 m	⌚ 5:20 h	⌚ 1:10 h

Los Corrales pasa eta hegoalderantz jo ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara. Eskuinera egingo dugu pista zuzen bat hartzeko mendebalderantz, A-12 autobia gure aurrean ikusi arte. Azpiko pasabidetik igaro ondoren, mendebalderantz jarraituko dugu, NA-1110 errepidearekin topo egin arte.

Pistak hegoalderantz egiten du, zuzen-zuzen, errepidearekiko paralelo. Bide honek Los Arcos herritik zirkuitura doan pistaren eta errepidearen arteko bidegurutzera eramanen gaitu. Puntu honetan kontu handiz ibili behar dugu, errepidea gurutzatu eta “Carralerin” bidea hartzeko, Los Arcos herrira zuzenean doan hartxintzarrezko pista.

6	Los Arcos						
	△ 445 m		21,8 km	↗ 341 m	↘ 320 m	⌚ 6:25 h	⌚ 0:00 h
Zerbitzuak							

Hego-ekialdetik sartuko gara hiribildu historiko honetan eta, iturri bat ezkerretara utzi ondoren, Antso Jakitunaren hiribidea hartuko dugu, ezkerrean eginez. Horrela, “Plaza del Coso”-raino jaitsiko gara, bertan atseden hartu eta handik, Los Arcos-ko hirigune historikoan sartuko gara, Donejakue Bideko igarobidea eta bertako etaparen amaiera eta hasiera dena.



## 7. ETAPA

### LOS ARCOS – KODESEKO SANTUTEGIA



17,8 km	614 m	272 m	5:25	5:20	3	2	2	3

GR®1-a Nafarroan Torre de Peñan sartu zenetik, Nafarroako “beste izkinan” gaudela esan dezakegu eta hemen, berriro ere, mendiarekin eginen dugu topo, karraskal eta harizti zabalekin. Kareharrizko arroak nagusitzen diren erliebea dugu nagusi orain, mendi artean haran txikiak sortuz, Berruezakoa errate baterako.

Los Arcos herritik abiatuko gara, Donejakue Bideko herria, Frutaren Plazako aterpeekin, Santa Maria elizarekin eta arkupedun plazarekin.

Etapla gogorra izango da honakoa, pistetan egin beharreko lehen 5 kilometroekin. Bideko iturri bakarra Desojo herrian dago, ibilbidearen erdialdean.

①	Los Arcos						
	△ 445 m	0 km	0 m	0 m	0:00 h	5:20 h	
Zerbitzuak							

“Portal de Castilla”-ren parean Odrón ibaia gurutzatzen duen garbilekuko zubitik aterako gara Los Arcos-tik.

Eskuinean kultur etxea eta udal aterpetxea izanen ditugu San Lazaro kalean, Donejakue Bidearekin bat egiten duen tarte honetan.



Udal aterpetxea gainditu ondoren, eskuinetara “El Hortal” kalea hartuko dugu, ipar-mendebalderantz egin eta herria atzean utziz, soro artean.

Zereal soro eta mahastien arteko eremu ireki batean, lau bideko bidegurutze batera iritsiko gara. Iparaldean, San Gregorio Ostiense basilika ikusiko dugu, Sorladako mendilerroaren inguruan.

GR® 1-aren ibilbideak ipar-mendebalderantz jotzen duen bidea jarraitzen du, jaitsiera leunean. Desojo bidea da honako hau eta, eskuinaldean sortzen diren pistei kasurik egin gabe, "La Tejeria"-ko bidegurutzera iritsiko gara. Aska bat dago bertan pistaren eskuinaldean.

Iparralderantz doan goranzko pista hartuta, "Corral del Otro Lado" eta Berrueteko ikuiluen ondotik pasako gara.

Puntu horretatik aurrera, malda handitu egingen zaigu, Santa Teodosia ermita hartzen duen kaskoaren eta Somedera mendilerroaren artean dagoen lepora iritsi arte.

②	Santa Teodosia					
	△ 594 m	 4,5 km	↗ 150 m	↘ 0 m	⌚ 1:20 h	🕒 4:05 h

Begi bistan paisaia zabala agertuko zaigu: Kodesko eta Cabregako mendilerroek Berrueza bailara babesten dute eta iparralderago Lokizko mendilerroa ikus daiteke.




Pista Mueserantz jaisten da. GR® 1-ak, ostera, ekialderantz egiten du, Somedera mendilerroa zeharkatuz, hasieran hego magaletik. Somedera kotatik igaro eta soroa gurutzatu ostean, mendi-bide polit antzaldatzen da.

Mendilerro gainaldetik jarraituko dugu (Izarrulako gainak deritzona) jaisten hasi aurretik. Jaitsiera hori areagotu egingen da, sakanetik igotzen den lur-bidera iritsi arte. Hemendik, zeruertzean, Desojo herri bitxia ikusten da.

Bideak behera egiten jarraitzen du, mendilerroaren iparraldeko muinoa ekialderantz inguratuz. Orain, mendilerroaren oinarritik jarraituko dugu, Balacin ibaiaren paretik.

Ondoren, Teileria zaharraren ondoko eraikin bitxira iritsiko gara. Karratu itxurako eraikin txikia da honakoa, eta eguraldi txarretik babesteko balio lekiguke.

Noranzkoa mantenduz eta Desojo herria begi-bistan dugula, Teileria ibaiaren ibilgu ohizko lehorra zeharkatuko dugu, ondoren ezkererantz doan pista hartzeko. Desojoko hegoaldera iritsiko gara, Esprontzedako errepidea gurutzatu ondoren: arreta jarri behar.

③	Desojo					
 	△ 544 m	 8,8 km	↗ 245 m	↘ 140 m	⌚ 2:40 h	🕒 2:45 h

Merezi du Kodes mendilerroaren babespean dagoen Aguilar haraneko herri polit honen txokoak ezagutzeak.

Herriaren sarreran elkartea eta udala daude, parke iturridunaren ondoan. Kale Nagusian gora egingen dugu, herriaren goiko aldean Esprontzedako errepidera iritsi arte.

Aguandarto iturriaren txokoan, GR® 1-ak iturriaren eta zume negartiaren arteko eskaileretatik jarraitzen du, Mirafuentesko bidetik.

Soro artetik jaitsiz, bideak sakonune batera eramanez gaitu, hilerria ezkerretara utziz.


Behin jaitsi ondoren, baratze gunetik batera iritsiko gara eta "Fuente de los Burros" izeneko gure bidean topatuko dugu.

Bide nagusitik atera gabe, Villanueva ermitara daraman bidegurutzera helduko gara. Horixe da izen bereko herri zaharraren aztarna bakarra.

GR® 1-ak eskuinetik gorantz egiten du, bide labur baten ondoren mendi-lepo batera iritsi arte.

Puntu horretan, bide nagusia utzi eta ezkerretara hasten den bidezidorretik igotzen jarraituko dugu, "Mirafuentes" bidea, hain zuzen ere.


Ingurunea aldatu egingo zaigu une honetan, eta basobera eremuan sartuko gara. Bidea gorantz doa pixkanaka eta basoberak artadiari emanen dio lekukoa, "El Portillo" lepora iritsi aurretik.

④	El Portillo						
	△ 723 m		12,4 km	↗ 435 m	↘ 160 m	⌚ 3:45 h	🕒 1:40 h

Bidegurutzea. Iparralderantz bidea Mirafuentes herrira doa eta ekialderantz, berriz, Ubagora eramanez gertatzen, Cabregako mendilerroaren magaletik.

Guk, ordea, Otiñanoko bidetik mendebalderantz igotzen jarraituko dugu. Muino batera iristean, haranaren hondoan, Otiñano herria ikusiko dugu, Malpikako haitzen babespean. Eskuinerago, berriz, Costalerako oinean, Nazar herria kokatuta dago. Berrueza bailarako herriak dira hauek, Kodes mendilerroaren azpian.

Hurrengo bidegurutzera iristean, ezkerreko bideari jarraituko diogu, eskuineko pista Otiñanora jaisten baita. Modu honetan, isurialdez aldatuko dugu eta hegoalderantz jaisten hasi bezain laster, pistaren eskuinaldean sortzen den bideari helduko diogu. Bideak 180°-ko bira egin eta gorantz egingo du berriro, mendilerroko gaina hartzeko. Artadia zeharkatzen duen bide hau lur pista bihurtuko da Otiñano eta Kodeseko Santutegia lotzen dituen errepidera iritsi baino lehentxeago. Errepide hau gurutzatu ondoren, "La Concepción" haitzaren magaletik gora egingen dugu, hurrengo bidegurutzera iritsi arte. Han, ezkerretara egiten duen beheranzko bidea hartuko dugu.

⑤	Ermita de la Concepción						
	△ 852 m		15,7 km	↗ 564 m	↘ 160 m	⌚ 4:40 h	🕒 0:45 h














Bidegurutzean, Otiñanora doan errepidera jaisten jarraitzen duen bidea utzi eta eskuinerantz igotzen den bidetik jarraituko dugu.

Igoera motz baten ondoren, bideak Malpikako magala zeharkatzen du, artadiak babestuta.

San Vicente txaletaren ingurutik igaro ondoren, GR® 1-aren ibilbidea Santutegirantz jaisten hasten da. Basoko soilgune bat zeharkatu ondoren, berriro basoan sartu, pista hegoalderantzko jaisiera bati ekin aurretik.

Beste soilgune txiki batera iristean, jaitsierako malda handitu egingo da bideak ipar-mendebalderantz egitearekin batera. Ehunka urteko haritz ikusgarrien eremu batean sartuko gara orduan eta, eskuinean, aska bat eta ur-hartune bat izanen ditugu.

Hegoalderantz biratuz, Kodeseko Santutegiaren ingurura eramanen gaituen pista sortzen da.

<b>6</b>	Kodeseko Santutegia					
	 798 m	 17,8 km	 614 m	 272 m	 5:25 h	 0:00 h
Zerbitzuak	     					


Ibilbidea belarrezko bidetik jaisten da Santutegiko klaustrotik heltzeko, ostatu azpian dagoen lorategira iritsi arte.

Gaur egungo Santutegia XVI. eta XVII. mendeetakoa da. Elizak, 1614. urteko ostatuak eta 1692an Gotzainak berak egiteko agindu zuen Lepeko Gotzainaren Jauregia deiturikoak osatzen dute Santutegia bere osotasunean.

Honen aurretik, ordea, Kodesen herrixka bat izan zen, San Migel ermita eta guzti. Bederatzigarren mende osoan zehar (900 - 1008), anakoreten gunea izan zen.

## 8. ETAPA

### KODESEKO SANTUTEGIA – SANTIKURUTZE KANPEZU



12,3 km	517 m	746 m	4:20	4:35	4	2	2	3

Kodes mendilerroa Nafarroako mendebaldeko puntan dagoen mendigunea da eta Arabako Kanpezuko bailara Nafarroako Aguilar eta Berrueza bailaretatik bereizten du.












Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuta dago eremu hau eta Nafarroako dibertsitate biologikoaren adierazgarri diren habitat naturalak, flora eta fauna basatia biltzen ditu. Kasu batzuetan, desagertzeko arriskuan daude, gainera.

Mendilerroaren puntu gorena Joar tontorra da, 1414 m-ko altuerarekin. Hegoaldeko isurialdean harkaitzak eta kareharriak dira nagusi eta iparraldean, berriz, basoz estalia dago lurraldea.

Oso etapa menditsua da eta, lainoa eta eguraldi txarra dagoenean, ez da batere komenigarria etapa burutzen saiatzea.

Lehenengo bi kilometroetan 400 metroko desnibela gaitutuko dugu, ia atsedunik hartu gabe. Ondoren, jaitsiera luze bat egingo dugu, Nazarko leporaino. Arabako lurretan sartuko gara bertan eta Santikurutze Kanpezun amaituko dugu etapa.

Etapa gogorra da, hasieran batez ere, eta itzal gutxi topatuko dugu ibilbidearen lehen erdian. Bidean izango dugun iturri bakarra Ibernaloan atsedenekuan dago, Santikurutze Kanpezutik 2 kilometrora eta Kodeseko Santutegitik 10 kilometrora.

1	Kodeseko Santutegia											
	△ 798 m			0 km		0 m		0 m		0:00 h		4:35 h
Zerbitzuak	    											



Santutegiko goiko aparkalekutik iparralderantz igotzen hasten den bidea sortzen da eta bertatik Kodeseko ikuiluatarantz egingen dugu.

Lehen zati horretan ehunka urteko haritzak ikus daitezkeen ingurune ederra gurutzatuko dugu. Bidea, "Senda del Puerto" izenekoa, harritsua eta zabala izateaz gain, atsedunik eman gabe igotzen da Joar mendiaren magalak estaltzen dituen hariztian barna.

Basotik ateratzerakoan, GR® 1-a malda bizian igotzen den bidezidor harritsua, besterik ez da. Eremu ikusgarria da honakoa, "Cencerros" haitzaren eta "La Plana"-ko pareten babesean eginen baitugu aurrera.


Igoerak ez digu atsedetik emanen "La Plana" eta Joar arteko lepo txikira iritsi arte. Hemen trantsizio-eremua hasiko zaigu, malda leundu egiten baita, eta bidegurutze batera iritsiko gara. Bertan Nafarroa eta Arabaren arteko muga zapalduko dugu lehen aldiz.

Bidegurutzean eskuinera eginen dugu, aurrerago etapako gailurra zapaltzeko, San Kristobal tontorra (1243 m) hain zuzen ere. Arabako eta Nafarroako muga arteko lurretatik eginen dugu aurrera Nazarko mendate lepora heldu arte.

②	San Cristóbal						
	△ 1243 m		2,7 km	↗ 455 m	↘ 0 m	⌚ 1:25 h	⌚ 3:15 h

Gailurretik metro batzuk iparraldera, ermita zahar baten hondakinak daude. Zeruertza ireki egiten da eta iparralderantz Arabako Kanpezuko lurak ikusiko ditugu; hegoaldera, berriz, Malpika, La Plana eta Joar mendiek ikuspegia mugatu eginen digute.

Bidexkak ipar-ekialderantz jarraitzen du, eremu harritsuan behera eginez ezpel artean, Nazar mendateraino. Mendilerroaren goi aldea zeharkatuko dugu honela eta Costalera mendizerraren irudi garbia izanen dugu uneoro gure parean.

③	El Puerto						
	△ 1154 m		5,3 km	↗ 490 m	↘ 123 m	⌚ 2:05 h	⌚ 2:25 h

Azken muino bat ezkerretik igaro ondoren, Nazar lepora iritsiko gara. Bertan topatuko dugu Berrueza eta Kanpezu bailarak lotzen dituen bidea.








Bide hori ezkerretik hartu eta pago artean sartuko gara ipar mendebaldeko norantzan, Kanpezuko lurretara jaisteko. Kodeseko mendilerroaren iparraldeko magalak dira honakoak.

Bidearen ezkerrean sortzen den pista hartzeari muzin eginez, "Cogolla" gainera iritsiko gara. Puntu honetan bideak ezkerretara biratzen du. Guk iparralderantz sortzen den bidexka hartuko dugu, honaino ekarri gaituen bidea atzean utzita.

Ezpel artean jarraituko dugu oinez, pagadiak ere lagun izanik, bidexka sigi-saga mendi-lepo batera jaisten den bitartean. Bidea adarkatuko zaigu hemen.

Beheranzko bideari jarraituko diogu ekialderantz, lur zabaleko pista batera iritsi arte. Geroxeago bidegurutze batera iritsiko gara.

Hegoalderantz doan pistak 180°-ko bira egiten du iparralderantz. Toki horretan, pistaren eskuinaldean jaiotzen den bidezidorretik sartu eta, ibarrean barrena, Ibernaloiko atsedenekura iritsiko gara.

4	Ibernalo											
		△ 652 m		10 km		490 m		650 m		3:40 h		0:40 h

Aisiarako eremua da, iturria dagoelarik. Honaino Santikurutze Kanpezutik Ibernaloko ermitara igotzen den errepidea iristen da, hemendik 300 metrora.








Errepidean behera jarraituz, ezkerretara ateratzen den lehen pistari helduko diogu. Aldapa handi baten ondoren, pinudi batera iritsiko gara.

Puntu horretan, dakargun bideari kasurik egin gabe, ur-biltegira doan lur-pistatik jarraituko dugu. Ur-biltegia gure ezkerretara utzi eta artadian murgilduko gaituen pista hartuko dugu.

Orain bideak malda leunetik behera egiten du, hasieran ipar-mendebaldeko norantzan, gero hego-mendebaldera aldatzeko. Artaditik baratze-eremu batera aterako gara. Berehala ur-biltegi zaharraren hondarrak dauden bidegurutzera iritsiko gara.

Iparralderantz jarraituko dugu hormigoizko pistatik, Santikurutze Kanpezu herrira Santa Elena kaletik sartu eta Yoar kalearen bidegurutzera iritsi arte

Puntu horretan eskuinera jaitsiko gara, Arrabal kaleraino, Guruztokiaren ermita dagoen lekuraino hain zuzen ere.

5	Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu						
	△ 555 m		12,3 km	↗ 517 m	↘ 746 m	🕒 4:20 h	🕒 0:00 h
Zerbitzuak	     						

Eskualdeko hiriburua da eta Ega ibaiaren ertzean kokatua dago. Errate baterako, Trebiñu eta Lizarra lotzen zituen bidea bezalako bide garrantzitsu eta zaharrak lotzeko kokaleku estrategikoa du herriak.

XII. mendetik ezagutzen da eta, garai hartan, Nafarroako Erresumako arma-plaza garrantzitsua zen.